

Unibertsitateko irakasleen profila

Eguzki Urteaga

eguzki.urteaga@ehu.es

Soziologia Saila

Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Unibertsitatea. Irakaslea. Profila. Bilakaera. Kalitatea.

1. SARRERA

Lanbide intelektualen artean, unibertsitateko irakaslearenak garapen nabarmena ezagutu du xx. mendeko bigarren erditik gora, ikasleen kopuruaren emendatze izugarriarekin batera. Frantzia, esaterako, 1960ean 8.131 unibertsitate-irakasle bazeuden (hau da biztanleria aktiboaren % 0,03¹), 89400 ziren 2005-2006 ikasturtean, hots, biztanleria aktiboaren % 0,4. Beraz, lanbide horretan jende gutxi aritzen bada ere iraganean baino ohikoagoa da. Eskala-aldaketa baten aurrean gaude, baita ere lanbidearen eraldaketaren aitzinean, zeren unibertsitatean segurtatu behar dituen eginkizunak aniztu egin baitira, unibertsitateko irakasleek bete behar dituzten jardueren eta funtzioen biderkatzea eta ezberdintzea eragin da². Kokapen sozialaren aldaketa bat ere gertatu da, zeren, ikasketen demokratizazioak eta informazio- zein komunikazio-teknologia berrien agerpenak erraztu egin dute ezagutza eskuratzea, gizartearen ezagutza-maila hobetuz.

Artikulu honen helburua, talde sozial hori hobeki ezagutzea da, bere profila zehaztuz, dauden ezagutzak batuz, eta suertatu diren eraldaketa nagusiak agerian utziz, bai Frantzia bai gainontzeko herrialdeetan. Hala ere, hausnarketa herrialde garatuetara mugatuko da, batetik, informazio gehien

¹ Rapport de Barcque (1974). *La situation des personnels enseignants des universités. Eléments de réflexion pour une réforme*. Paris: La Documentation française, p. 33. or.

² Gueissaz, A. (1999). *Les mondes universitaires et leur informatique. Pratiques de rationalisation*. Paris: Editions du CNRS.

plazaratzen baitute eta arrazoizko alderaketak egitea ahalbidetzen dutelako; bestetik, herrialde horietako unibertsitate-irakasleen eta gainontzeko herrialde eta eskualdeetako profesionalen arteko aldeak handiegiak direlako, eta konparaketa zailagoa. Aurreratutakoa adibidez hornitzeko eta alderaketa sistematikoak egiteko, hiru herritako datu enpirikoak erabiliko dira batik bat: Alemania, Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuetakoak. Herri horiek XIX. eta XX. mendeetako hiru unibertsitate-tradizioren isla dira.

- Alemanian, XIX. mende hasieran, tradizio humboldtiarra garatu da, zeinaren arabera unibertsitate bakoitzak, fakultate ezberdinak batzeaz gain, irakasle titularrak eta katedradunak bereizten dituen, irakaskuntza eta ikerkuntza eginkizunen arabera.
- Frantzian garatzen den modelo napoleondarra, aldiz, Estatuak eta unibertsitate-korporazioen ordezkari nazionalak zuzendutako fakultateen gainean oinarritzen da. Unibertsitateko irakasleen eginkizun nagusia titulu akademikoak banatzea da, luzaz itxaron beharko da ikerkuntza beraien eginbeharretan sartu aurretik.
- Ameriketako Estatu Batuek (AEB) eredu anglosaxoiaren aldaki bat osatzen dute. Unibertsitate-irakasleak lanbide gisa osatu aurretik, unibertsitate-sistemaren oinarria osatu duten erakunde indartsuen inguruan antolatu ondoren garatu da. Horrez gain, oinarritzko unitatea irakaslea baino katedraduna da, eta berori lotutako laguntzaileak: irakasle-ikertzaile taldeak eta sailak.

Testuinguru horretan, artikuluko honek unibertsitateko irakasleen izaera azaldu nahi du. Galdera horri erantzuteko, ezinbestekoa da, besteak beste, lanbide horrek ezagutu dituen aldaketa demografiko eta soziologikoak agerian uztea. Zentzu horretan, lan hau, lanbideen, lanaren eta hezkuntzaren soziologiaren erdian kokatzen da. Komenigarria da azterketa historia garaikidean kokatzea, 1980ko hamarkadatik landa suertatu diren bilakaerei arreta berezia eskainiz, horrek gaur egungo irakasle-ikerlariak dauzkaten erroak agerian uzteko aukera eskaintzen baitu. Izan ere, 2000ko hamarkadan lanbide hori hobeki ezagutzea funtsezkoa da, gizarte garaikideetan goi mailako heziketak, ikerkuntzak, garapenak eta berrikuntzak toki berezia betetzen dutelako.

Ezagutzaren gizarteak ez ditu soilik unibertsitate-irakasleak ukitzen, baina talde profesional horrek ardura berezia dauka, denborarekin aldatu eta erroak berriak agertzen badira ere. Herrialde askotan —eta bereziki Frantzian—, hausnarketak piztu, erreformak burutu eta aurrerapenak egin dira irakasleen kudeaketa, estatusa, eginkizun eta ebaluaketa motak eraberritzeko. Unibertsitateko irakasleek mutazio batzuei aurre egin behar diete, gizartean daukaten tokia, beraien barne-egituraketa, jardueren edukia eta gauzatzen diren baldintzak aldatu egin baitira. Hori dela eta, ezinbestekoa da eraldaketa horiek eta horien azpian dauden prozesuak agerian uztea eta ulertzea.

Unibertsitate-irakasleen profila zehazteko, Frantziar, Alemaniar eta AEBetan burutu diren ikerketa enpirikoak, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak, landu ditugu, bai eta Metzger-en erreferentziako lana, Lazarsfeld eta Thielens-ek giza eta gizarte zientzietako ikerlari eta irakasleei buruz egindako inkesta historikoa, edo unibertsitateko irakasleen jarrerak eta iritziak ezagutzeko Clark-ek³ burutu duen ikerketa. Halaber, Philip Altbach⁴-ek, modu alderatuan, unibertsitate-irakasleek alderdi politiko eta oposizioko mugimenduetan daukaten inplikazio maila aztertu du.

Frantziaren kasuan, Hezkuntza Ministerioak plazaratu dituen datuak erabiltzeaz gain, INSEEren «enplegu» inkestak oso baliagarriak izan dira, ikerlari frantsesek burututako lanak ahaztu gabe, besteak beste, Sylvia Faure eta Charles Soulié⁵-renak. Erakutsi dute jatorri sozial goreneko unibertsitate-irakasleak letra eta gizarte zientzietako fakultateetan daudela, baita emakumeen artean ere. Bere aldetik, Gérard Houdeville-ek⁶ azpimarratzen du paristar soziologoak probintziakoak baino jatorri sozial goragoak direla.

2. GAIZKI ZEHAZTUTAKO MUGAK

Unibertsitateko irakasleak modu nahiko zehatz eta unibertsalean definitzea ez da erraza, herrialde bakoitzak bere definizio propioa proposatzen baitu, antzekotasunak dauden arren. Gainera, herri berean, hitz berak, egoera, estatus eta errealtate ezberdinak gorde ditzake. Aniztasun hori geroz eta nabarmenagoa da unibertsitateen autonomizazioaren ondorioz. Aitzitik, unibertsitateko irakasle kontsideratu dezakegu goi mailako irakaskuntzan irakasten duen pertsona, ikerkuntzan aritu ala ez.

Alabaina, definizio hori Frantziari aplikatuz gero, mugak edukitzeaz gain, aterabiderik gabeko karrika batera daramala ikusten da luze gabe. Lehenik, argi eduki behar da zer sartzen den goi mailako irakaskuntza-guneetan. Hexagonoan, esaterako, izendapen horretan sartzen dira unibertsitateak, goi mailako zentroak (Zientzia politikokoa, CNAM, etabar) eta

³ Clark, B.R. (1987). *Academic Life Small Worlds, Different Worlds*. Carnegie Foundations for the Advancement of Teaching. Lawrenceville-Princeton: Princeton University Press.

⁴ Altbach, P. G. (1998). «Professors and politics», in Altbach, P.G., *Comparative Higher Education: Knowledge, the University and Development*. Greenwich-London: Ablex Publishing Corporation, 93-103 or.

⁵ Faure, S., Soulié, C. (2005). *Enquête exploratoire sur le terrain des enseignants-chercheurs. Vers un bouleversement de la «table des valeurs académiques?»*, Rapport d'enquête, juin 2005.

⁶ Houdeville, G. (2006). *Des sociologies à la sociologie. Les conditions et les effets de l'autonomisation d'une discipline dans l'espace académique français: la sociologie après 1945*. Doctorat de sociologie, Université de Nantes.

Goi mailako eskolen Konfederakuntzako (CGE, *Conférence des Grandes Ecoles*) edo FrantziakoIngeniari-Eskoletako zuzendarien Konferentziako (CDEFI, *Conférence des directeurs des écoles françaises d'ingénieurs*) Goi mailako eskola(Frantziako *Grande École* izendapeneko zentroak hor sartzan dira) kideak. Lehenak Hezkuntza Ministerioaren zuzendaritzapean dauden bitartean, bigarrenak ministerio horren pean, beste ministerioen baten ardurapean edo Merkataritza eta Industria Ganbaren pean daude, sektore pribatua ahaztu gabe. Baina definizio horrek bazter uzten ditu goi mailako teknikarien ziurtagirietarako (BTS, *brevet de technicien supérieur*) heziketak, baita Goi mailako eskoletarako prestakuntza heziketa ere. Formakuntza horiek nazioarteko erakundeetan (UNESCO eta OCDEn, esaterako) hirugarren mailakotzat jotzen dira ere, institutu publiko eta pribatuetan eskainiak dira, bertan diharduten irakasleak bigarren mailakoak izanik.

Horrez gain, murrizgarria den arren, goi mailako irakaskuntza-gune horiek ez dute lanbide talde bateratu bat osatzen. Hezkuntza Ministerioari loturiko unibertsitate eta Goi mailako eskoletan, estatus oso ezberdineko profesionalak daude. Katedradunek eta irakasle titularrek irakasle-ikerlarrien multzoa osatzen dute, funtzionarioak direla jakinik. Horietariko batzuk, zatikako denborazko irakasle asoziatuak dira (PAST, *maître de conférences associé à mi-temps*), esan nahi baita bestelako lanbide bat izateaz gain klaseak ematen dituztela. Aitzitik, ministerio horretako langileez gain, langile kontraktualak ere badaude, doktoregai irakasle-monitore lez: hiru urteko epean Estatuaren langileak dira, doktoregoa prestatzen duten bitartean. Kontratuaren arabera, urtero 64 orduko klaseak segurtatu behar dituzte unibertsitatean, eta ezinbestez goi mailako irakaskuntzarako 30 heziketa egun jarraitu behar dituzte. Hiru urtean banatuta dagoen formakuntza hori goi mailako irakaskuntzaren inimizazio-guneetan burutzen da (CIES, *Centres d'initiation à l'enseignement supérieur*).

Irakasle kontraktual horien artean, ATERak (*attaché temporaire d'enseignement et de recherche*,) ere badaude, kasu gehienetan tesia amaitzear edo amaitu berri duten doktoregaiek betetzen dituztelarik: behin berriro daitekeen urte bateko kontratua da. Beste kategoria bat unibertsitatean klaseak ematen dituzten bigarren mailako irakasleek osatzen dute: horien artean agiri bidezko irakasleak daude (PRCE) (*professeur certifié*), esan nahi baita bigarren mailako irakaskuntzan irakasle izateko gaitasun ziurtagiria daukatela (CAPES, *Certificat d'aptitude au professorat de l'enseignement du second degré*), baina batez ere bigarren mailako irakasle agregatuak (PRAG, *professeur agrégé*). PRCE eta PRAGak unibertsitate-irakasle gisa zenbatzen dira, bigarren mailako irakasle titularrak izan arren; aldiz, Goi mailako eskoletan sartzeko prestaze-ikastaroak (CGPE, *classes préparatoires aux grandes écoles*) eta BTSetan irakasten dutenak ez dira kategoria berean sartzan. Azkenik, unibertsitatean klaseak ematearren orduka ordainduta dauden irakasleak edo klase-arduradunak daude. Kasu gehienetan

adituak dira alor jakinen batean: ordu gehigarriak segurtatzen dituzten unibertsitateko irakasleak izan daitezke, edo ikerketa guneetatik datozen ikerlariak.

Estatus publikoa daukaten baina Hezkuntza Ministeriotik kanpo diharduten unibertsitateko irakasleen baitan (esaterako, Laborantza Ministerioari atxikita goi mailako laborantza irakaskuntzan parte hartzen dutenak, edo Defentsa Ministerioaren peko Eskola Politeknikoan dihardutenak), egoera anitzak eta gune bakoitzak beezko dituen estatusak aurkitu daitezke. Adibide bat hartzearren, Meategietako Eskolako irakasleak eskola horretako ikerlari kontraktual izan daitezke. Azkenik, sektore publikotik kanpo dauden Goi mailako Eskolak definizio, estatus eta arau propioak dauzkate, beren irakasle egonkor eta interino askori dei egiten diete. Beraz, ikusi daiteke, goi mailako irakasle izendapenak, egoera, estatus, karrera profesional eta eginkizun anitz bezain ezberdinak gordetzen dituela atzean.

Baina Frantziarentzako egia dena ez da nahi eta nahi ez egia herri eta une historiko guztietan, zeren unibertsitate-irakasleen definizioa herrialde eta bolara batetik bestera aldatzen baita. Esaterako, doktoregaiak unibertsitate-irakasleen taldean sartzea ez da fenomeno orokorra. Frantzia, soilik Hezkuntza Ministerioaren estatistiketan zenbatzen dira, irakasle-monitore estatusa daukatelarik. Aitzitik, informazio-txosten baten arabera, 71.787 pertsonak eman dute izena doktoregoan 2005ean, zenbatutako 6.663 irakasle-monitoreek soilik doktoregaien % 9 osatzen dutelarik. Aldiz, Ameriketako Estatu Batuetan, ez dira estatistiketan agertzen, eta bakarrik denbora mugatuko (*part-times*) irakasleen azpi-taldeak agertzen dira, nahiz eta horretarako baldintza berezi batzuk bete behar dituzten. Alemanian, ordea, doktoregaiak maiz lanpostu ezegonkorak betetzen dituzte eta goi mailako irakaskuntzako irakasle gisa zenbatzen dira, doktoregaiak gisa identifikatu gabe.

Azken urteetako joerak erakusten du doktoregaiak geroz eta gehiago irakasle bezala ikusiak direla, bereziki European, non Europako Batzordeak (2005) «Ikerlariaren Europako karta eta ikerlarien kontratatuzeko jarduera-kodea» izenburua duen gomendioa argitaratu duen. Testu horretan, doktoregaiak formakuntzan dauden ikerlari gisa definituak dira. «Ikerketa-karrera batean murgilduta dauden ikerlari guztiak profesional gisa kontsideratuak eta horren arabera tratatuak izan beharko lukete. Ezagupen hori hasi beharko litzateke beren karreraren hasieratik, esan nahi baita hirugarren ziklotik, eta maila guztiak batu beharko litzuzke, sailkapen nazionalak kontuan izan gabe».

Iraganean arraragoak ziren eta gaur egun ugaritzen ari diren langile-kategoria batzuen agerpenak eta toki geroz eta handiagoak lanbidea osatzen duten azpi-taldeen pisuaren aldaketa eragin dute. Kasu esanguratsuenak, post-doktoregaiena da eta, maila txikiago batean, *adjuncts*-ena (AEBetan). Esaterako, 1980ko hamarkadan burutu duen ikerketan, Metz-

ger-ek⁷ denbora osoko eta zatikakoak, eta lanpostu egonkor eta ezegonkorak bereizten ditu. Aldaketak egon arren, gaur egun karrera egiteko bide egokiena ez da desagertu. Lehenik, *assistant profesor* izan behar da, *tenure track*-ekin, *tenure*-ra iristeko, esan nahi baita enplegu egonkorra heltzeko. Baina *tenure track* ala *tenurera* daramaten lanpostuen % 41 baino ezin da oposaketa bidez eskuratu. Ameriketako lan merkatuan maizenik agertzen diren postuak post-doktoregaiak, denbora erdiko postuak ala ordezkapenak dira, beti ezegonkorak (*adjuncts*). Horrela, doktoregora prestatzen duten eta ikerketak burutzen dituzten *research institutions*-etan, *tenure track* gabeko denbora mugatuko irakasleria % 3,2tik % 34,8ra igaro da 1969 eta 2003aren bitartean⁸. Hori dela eta, irakasle-ikerlarien taldeak al daketa sakonak izan ditu bere barne-osaeran.

Era berean, talde horren garrantzi kuantitatiboa desberdina da herrialde batetik beste batera. Alor honetan, alderaketak ez dira goi mailako irakas-kuntzako profesionalen artean egiten, baizik eta ikerlarien artean, zeren ikerlariak modu zehatzean definituak izan dira nazioartean⁹. Aipatutako hiru herrialdeei dagokionez, 2004an, 200.000 ikerlari (unibertsitate, ikerketa-gune eta enpresetan) daude Frantzian, 1.335.000 AEBetan eta 269.000 Alemanian, esan nahi baita 7,3 ikerlari 1.000 langilerentzat Frantzian, 9,1 ikerlari 1000 profesionalentzat AEBetan eta 6,7 ikerlari 1.000 langilerentzat Alemanian.

3. GAIZKI EZAGUTZEN DEN LANBIDEA

Zer dakigu lanbide-talde horri buruz? Gauza asko eta ezer gutxi. Datu gehientsuenak demografikoak dira eta unibertsitateko irakasleak zenbartzeko aukera eskaintzen dute, beren estatusa, generoa eta adinaren arabera, baita ere lan egiten duten erakundeen eta irakasgaiaren arabera. Herrialde gehienetan datu horiek duela zenbait hamarkada eginak daudenez, joera nagusiak identifikatzeko eta alderatzeko aukera eskaintzen dute. Alabaina, azpimarratu behar da ezagutza hori azpi-talde batetik bestera asko aldatzen dela. Frantzian, adibidez, duela zenbait urte, Hezkuntza Ministerioko Giza baliabideen zuzendaritza nagusiak (DGRH, *Direction générale des ressources humaines*), erregulariki argitaratzen ditu erraz eskuratu daitezkeen informazioak, ministerio horrek kudeatzen dituen unibertsitate-irakasleei dagokionez behintzat. Aitzitik, ez dago datu estatistiko eskuragarririk in-

⁷ Metzger, W.P. (1987). «The academic profession in the United States», in Clark, B.R., *The Academic Profession. National, Disciplinary and Institutional Settings*. Los Angeles-London: University of California Press.

⁸ Schuster, J., Finkelstein, M. (2006). *The American Faculty : The Restructuring of Academic Work and Careers*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.,44-45 or.

⁹ Frascati, M. de (2003). *La mesure des activités scientifiques et technologiques*, Paris: OCDE.

terinoen kolektiboari buruz, irakasle sindikatuak egiten duten zenbaketaz aparte. Estimazio horien arabera, denbora osoko 40.000 posturen baliokide izango lirake¹⁰. Beste ministerioetara atxikitako irakasleei dagokionez, eta are gehiago Merkataritza eta Industria Ganbarari edo erakunde pribatuetara loturiko Goi mailako Eskoletako irakasleen kasuan, ez dago ez informaziorik ezta inongo laburpen-lanik ere.

Hezkuntza Ministerioaren menpeko unibertsitateetako irakasleen kasuan, DGRHk emandako datuen arabera eta Ebaluaketaren, prospektibaren eta emaitzen gaineko zuzendaritzak (DEPP, *Direction de l'évaluation, de la prospective et de la performance*) argitaratutako informazioaren arabera, datuak hauek dira:

1. taula
**Hezkuntza Ministerioari atxikitako irakasleen banaketa
2006-2007 ikasturtean**

Estatusa	Kopurua
Katedradunak	20.072
Irakasle titularrak	37.334
Irakasle laguntzaileak	155
Erietxe-buruak	4.234
ATERak	6.768
Monitoreak	6.701
PRAGak, PRICEak, etabar	13.408
Guztira	88.672

2. taula
**Hezkuntza Ministerioari atxikitako irakasleen banaketa,
erakunde moten arabera**

Erakunde mota	Kopurua	%
Unibertsitateaetan	71.709	80,0
IUTetan (institut universitaire de technologie)	9.956	11,0
Institutu eta Eskoletan	1.327	1,5
Bestelako erakundeetan	6.706	8,5
Guztira	89.698	100,0

¹⁰ Chevallier, T. (2001). «Professional diversity in a centralized system: academic staff in France», in Enders, J., *Academic Staff in Europe. Changing Contextes and Conditions*. Westport-London: Greenwood Press, 103-116 or.

Ameriketako Estatu Batuetan, aldea nabarmena da denbora osoz diharduten irakasleen eta besteen artean, azken horiek 1990eko hamarkadan izan duten hazkunde nabarmena dela-eta. Geroz eta ikerketa gehiago egin den horien egoeraren gainean, jatorria, ibilbide akademikoa eta lan baldintzak hobeki ezagutzeko asmoz. Lazarsfeld eta Thielensek 1955ean giza eta gizarte zientzietako ikerlari eta irakasleei buruz egindako inkesta historikoa burutu zutenetik, erregularri errepikatu da¹¹. Inkesta horiek Ameriketako unibertsitate-irakasleen bilakaera ulertzeko aukera eskaintzen digute, nahiz eta ez diren beti egokiak, eta alderaketa-aukerak sarritan murrizak¹². Unibertsitate izendapenaren atzeko aniztasunak nazioarteko alderaketak zailtzen ditu. Carnegie-ren sailkapenaren arabera, komeni litzateke ikerketa-unibertsitateak, doktoregoak proposatzen dituzten guneak eta soilik lehen eta bigarren zikloak eskaintzen dituzten erakundeak bereiztea. Azkenik, kasu gehientsuenetan, lan horiek datu gehiago dauzkate denbora osokoei buruz, ez eta zatikako denboran dihardutenen gainean, eta are gehiago

3. taula

Unibertsitateko irakasleen banaketa Ameriketako Estatu Batuetan, 2003an

Lan denbora	Lan kontratua	Estatusa	Kopurua
Denbora osoz	<i>Tenure track</i> edo <i>tenurekin</i>	Assistant prof.	158.100
Denbora osoz	<i>Tenure track</i> edo <i>tenurekin</i>	Associate prof.	149.600
Denbora osoz	<i>Tenure track</i> edo <i>tenurekin</i>	Full prof.	194.400
Denbora osoz	<i>Tenure track</i> gabe		179.700
Denbora erdiz			530.000
Guztira			1.211.800

4. taula

Unibertsitateko irakasleen banaketa Ameriketako Estatu Batuetan, erakunde moten arabera

Ikerketa unibertsitateak	Doktorego unibertsitateak	Master unibertsitateak	Lehen zikloko unibertsitateak	Besteak	Guztira
288.500	109.200	262.500	456.700	94.900	1.211.800
% 24	% 9	% 22	% 38	% 8	% 100

¹¹ National surveyes of faculty in U.S. higher education institutions.

¹² Schuster, J., Finkelstein, M. (2006), *The American Faculty: The Restructuring of Academic Work and Careers*. Baltimore, John Hopkins University Press, 370-382 or.

adjunctsei buruz, azken bi horien arteko muga ezartzea batzuetan zaila bada ere, definizioak autore batetik bestera aldatzen direlako.

Alemanian, azkenik, datuak aurkitzen dira goi mailako irakaskuntzako irakasleriaren estatusaren arabera (katedradunak maila ezberdinen arabera eta irakasle laguntzaileak daukaten kontratu motaren arabera), baina horrek oso datu orokorrak ematen dizkigu irakasle horien jarduerari buruz, zeren estatus bera erabili baitaiteke ikerkuntza soilik eta ikerketa eta irakaskuntza bateratzen dituzten profesionalak izendatzeko.

5. taula
**Unibertsitateko irakasleen banaketa
Alemanian, 2004ean**

Kategoria	Kopurua
Katedraduna	38.443
Goi mailako irakasle laguntzailea	13.393
Irakasle laguntzaile zientifikoa	106.416
Ardura berezirik gabeko irakaslea	6.537
Guztira	164.789

6. taula
Unibertsitateko irakasleen banaketa Alemanian, erakunde moten arabera

Unibertsitateetan	<i>Fachhochschulen</i> etan	Arte Ederrak, Teologia heziketa, etabarretan	Guztira
139.736	20.455	4.598	164.789
% 85	% 12	% 3	% 100

Estatusei eta erakundeei buruzko datuez gain, talde horren ezaugarri soziologikoak gaizki ezagutzen dira, baita herrialde batetik bestera egon daitezkeen aldeak ere. Clarken¹³ ikerketak unibertsitateko irakasleen jarre-
rak eta iritziak ezagutzeko aukera eskaintzen du, batez ere lan egoeraren inguruan. Aitzitik, ikerketa konparatiboak gutxi dira, Carnegieren inkestaz aparte, zeina 1996an egin zen, 14 herrialdetan¹⁴: Alemanian, Australian,

¹³ Clark, B.R. (1987). *Academic Life Small Worlds, Different Worlds*. Carnegie Foundations for the Advancement of Teaching. Lawrenceville-Princeton: Princeton University Press.

¹⁴ Altbach, P.G. (1996). *The International Academic Profession. Portraits of Fourteen Countries*. San Francisco: Carnegie Foundation, Jossey-Bass Inc.

Brasilen, Txilen, Hego Korean, Egipton, Erresuma Batuan, Hong Kongen, Israelen, Japonian, Mexikon, Herbehereetan, Errusian, Suedian eta Ameriketako Estatu Batuetan. Antzeko ikerketa bat burutzen ari da egun, eta emaitzak 2010ean argitaratu beharko lituzkete. Aukera eskainiko du denboran zeharreko alderaketa batzuk egiteko.

Lantokiaz aparte, unibertsitateko irakasleei buruz daukagun ezagutza urria da. Beren jatorri soziala maiz ez da argia, ezta beren bizimoduak, kidetza politikoak, praktika sozialak, kultura eta kirol ohiturak, etabar. Aitzitik, salbuespen batzuk aurki ditzakegu. Horrela, Philip Altbach¹⁵ek unibertsitate-irakasleek alderdi politiko eta oposizio mugimenduetan daukaten inplikazio handiago edo txikiagoaren azterketa alderatua egin du. Bereziki azpimarratzen du maiz politizazio maila altuagoa dela garapen bidean dauden herrialdeetan. Baina gai horri buruzko ikerketak batez ere Ameriketako Estatu Batuetan garatu dira, unibertsitarioen kokapen politikoei buruzko lanen biziberritzeak agerian uzten duen lez.

Frantzian datu eskuragarriak ez dira hain oparoak. Hala ere, INSEEn «enplegu» inkestek hainbat ondorio ateratzea ahalbidetzen dute unibertsitateko irakasle eta ikerlarien gurasoen kategoria sozialetik abiatuz. Ikusi daiteke unibertsitateko irakasleen eta ikerlarien aitak zuzendaritza karguak eta lanbide intelektualak betetzen dituztela, batetik, eta, bigarren urrats batean, erdi mailako lanbideetan egiten dutela lan (% 55 lehenentzat eta % 61 bigarrenentzat). Aldiz, soilik % 12ak eta % 10ak NOLA BI ZIFRA, KOLEKTIBO BAKAR BATI BURUZKO DATUA BADA? guraso langileak dituzte, proportzio horiek askoz altuagoak direlarik biztanleria osotara hartuz gero, % 37 alegia. Schuster eta Finkelsteinek Ameriketako Estatu Batuetan egin duten moduan, Sylvia Faurek eta Charles Soulié¹⁶ erakutsi dute Frantzian ere jatorri sozialak gorenakoak direla nagusi letra eta gizarte zientzietako unibertsitateko irakasleen artean, baita ere emakumeen artean. Gérard Houdeville¹⁷, frantses soziologoei buruz egin duen doktorego tesian paristar soziologoak probintziako lankideak baino jatorri sozial gora-gokoak direla azpimarratzen du.

Aldiz, ez dakigu Frantziako unibertsitate-irakasleen erlijio praktiken, jatorri etnikoen eta iritzi politikoen berri, azken boladari dagokionez behintzat. Pierre Bourdieu-k¹⁸, 1960ko hamarkadaren amaieran, Pariseko fakul-

¹⁵ Altbach, P.G. (1998). «Professors and politics», in Altbach, P. G., *Comparative Higher Education: Knowledge, the University and Development*. Greenwich-London: Ablex Publishing Corporation, 93-103 or.

¹⁶ Faure, S., Soulié, C. (2005). *Enquête exploratoire sur le terrain des enseignants-chercheurs. Vers un bouleversement de la «table des valeurs académiques?»*, Rapport d'enquête, juin 2005.

¹⁷ Houdeville, G. (2006). *Des sociologies à la sociologie. Les conditions et les effets de l'autonomisation d'une discipline dans l'espace académique français: la sociologie après 1945*. Doctorat de sociologie, Université de Nantes.

¹⁸ Bourdieu, P. (1984). *Homo Academicus*. Paris: Minuit.

7. taula

Frantses biztanleriaren arabera unibertsitateko irakasleen eta ikerlari publikoen banaketa, aitaren kategoria sozio-profesionalaren arabera

Aitaren kategoria sozio-profesionala	Frantses biztanleri aktiboa	Bigarren mailako irakasleak	Unibertsitateko irakasleak	Ikerlari publikoak
Laborariak	% 12	% 7	% 8	% 2
Autonomoak	% 12	% 11	% 9	% 8
Zuzendari eta lanbide intelektualak	% 9	% 18	% 36	% 46
Erdi mailako lanbideak	% 12	% 27	% 19	% 15
Enplegatuak	% 10	% 14	% 12	% 13
Langileak	% 37	% 19	% 12	% 10
Erretretadunak	% 1	% 0	% 0	% 1
Langabeak	% 1	% 1	% 2	% 1
Ezezaguna	% 5	% 3	% 3	% 5

tateetako irakasleei buruzko ikerketan zuhurtzia handiarekin ikusi zuenez, «letra eta gizarte zientzia fakultateetako irakasleak, oro har, zientzietako irakasleak baino ezkeragora jotzen dute. (...) Medikuntzako katedradunak, fundamentalistak izan ezik, ia denak zentroan eta eskuinean kokatzen dira. Zuzenbideko irakasleak ere eskuinean kokatzen dira, nahiz eta ez hainbesteko neurrian, eta arazo politikoen inguruan beren burua kokatzeko eta hitza publikoki hartzeko joera handiago dute, batik bat ezkerreko gutxiengoa osatzen badute»¹⁹.

4. LANBIDEAREN FEMINIZAZIOA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Identifikatu daitezken bilakaera tendentzialesi dagokienez, hiru bereizten dira nabarmen. Lehena, lanbide talde askotan gertatu dena, unibertsitateko irakasleen feminizazioa.. Alemaniaren kasuan zenbaki horiek handiagoak lirateke unibertsitate-hezkuntza baino ukituko ez balu. Emakumeek katedradunen % 12 osatzen badute, proportzio hori % 30era igotzen da estatus guztiak kontuan hartzen badira. Izan ere, *Statistisches Bundesamteko* datuen arabera, kontuan hartzen dira Unibertsitateak, *Fachhochschulenak* (non gizonezko irakasleriaren proportzioa askoz handiagoa den) eta gaitzientzietako zentroak.

Beraz, feminizazio-tasaren bilakaera argia da, Frantzia eta Ameriketako Estatu Batuetan behintzat, nahiz eta oso ezberdina izan. AEBetan, esa-

¹⁹ Bourdieu, P. (1984). *Homo Academicus*. Paris: Minuit, 93 or.

terako, *tenure track*etik aparte diharduten denbora osoko irakasleen erdia emakumeak dira, baina proportzio hori % 35era jaisten da *tenure track*a daukaten irakasleen artean. Alemanian, ordea, emakumeak dira goi mailako irakaskuntzako irakasleen % 25. Bestalde, feminizazioaren batez besteko tasa horiek fenomeno egonkorak gordetzen dituzte, alegia, emakumeen azpi-ordezkapena katedradunen artean, emakumeak unibertsitate-karreretan aspaldidanik sartu, eta diskriminazio baikorreko neurriak martxan jarri direlarik ere: «kristalezko solairua» ez da hautsia izan unibertsitateko irakasleen artean, eta oro har emakumeak maizago aurkitzen dira lanpostu ahuletan eta hierarkiaren lehen mailetan. 2003an, AEBetan, emakumeak *full professors*en (katedradunen baliokidea) % 24 baziren, 2004ean, Alemanian, % 9 baino ez. Halaber, karrera batzuk diskriminatzailagoak dira emakumeentzat. Frantzian, esaterako, letretako irakasle titularren eta katedradunen proportzioa % 51,2koa eta % 29,8koa zen bitartean, zientzietan % 31koa eta % 12,3koa. Zentzu horretan, emakumeak irakasle titularren artean ongi ordezkatuak izateak ez du bermatzen katedradunen artean ere hala izango denik. Medikuntzan, adibidez, irakasle titularren % 50,1 emakumeak badira ere, soilik % 13,2 dira katedradunak.

Bestalde, unibertsitateko lan-merkatuari buruzko diskurtsoak mugikortasuna goraipatzen eta sustatzen du zalantza gabe. Aitzitik, jario errazeko nazioarteko lan-merkatu batetik urrun gaude, gutxienez lanpostu egonkorrei edo egonkortasunera daramatenei dagokienez. Izan ere, badirudi estatus hori daukaten lanpostuak betetzen dituzten atzerritarrek harrera herrietan egin dituztela ikasketak, bereziki beren doktorego edo post-doktoregoa. Zentzu horretan, zaila da jakitea unibertsitateko lan-merkatuaren nazioarteratzearen aurrean edo ikasle ibilbideen nazioarteratze baten aitzinean gauden. Horrez gain, joera hori nahiko aldakorra da herrialde eta irakasgai batetik bestera. Ameriketako Estatu Batuetan, irakasgai zientifikoek gehiago erakartzen dituzte atzerritarrek, estatubatuarrak zientzietatik eta doktoregoetatik aldentzen diren neurrian. Frantzian, aldiz, irakasle titularren kontratazioari buruzko datuek atzerritarren ordezkartzaren egonkortasun erlatiboa erakusten dute (% 8aren ingurukoa), gehientsuenak Europako Batasunetik datozelarik.

5. LANBIDE TALDEAREN GARAPEN ITZELA

Hirugarren bilakaera nagusia, lanbide talde horren hazkunde demografikoa da, batik bat ikasleen emendaketaren ondorioz. John W. Meyer eta Evan Schofer²⁰-en aburuz, 500.000 ikasle inguru zeuden munduan

²⁰ Meyer, J.W., Schofer, E. (2007). «The university in Europe and in the world: twentieth-century expansion», in Krucken, G., Komutzy, A., Torca, M., *Towards a Multidiversity. Universities between Global Trends and National Traditions*. Bielefeld: Transcript Verlag, 48 or.

1900. urtean, eta 100 milioi 2000.ean. Frantziako kasuari erreparatuz gero, 214.000 ikasle eta 7.900 irakasle zeuden 1960ean; aldiz 1,5 milioi ikasle eta 54.500 irakasle 2003an. Ikuspuntu demografikotik, ikasleriaren masifikazioa maiz modu bortitzean eta uholdeka gertatu da: batez ere, 1960ko hamarkadaren hasieran eta 1980ko hamarkadaren erditsuan. Ikasleriaren hazkunde fase bakoitzaren ondorioz, irakasleriaren kopurua ere emendatu egin da. Herri industrializatu gehientsuenetan ikasleriaren hazkunde goi mailako irakaskuntzaren demokratizazioari eta *baby boom*ari lotua dago (1945 eta 1955 urte bitartean sortutako belaunaldiak). Hori dela eta, irakasle asko kontratatuak izan dira. 2003an, AEBetan, 45 urtetik gorakoa zen denbora osoko irakasleen % 63, nahiz eta geroztik proportzio hori gutxitzen joan den. 2004ean, Alemaniako irakasleen batez besteko adina 44 urtekoa izanik, katedradunena 53 urtera iristen zen. Frantzian ere, 2005ean, katedradunen batez besteko adina 52 urtekoa da eta irakasle titularrena 44 urtekoa, baina adin horrek igotzen jarraitzen du.

Erretiro-ikuspegi horiek ondorioak dauzkate lanbide akademikoan. Lehenik, herrialde batzuek —Alemania ala Austria adibide—, apustua egin dute datozen urteetan suertatuko den berrikuntzaren alde, lan baldintza berriak ezartzerako orduan, enplegu egonkorrei dagokienez. Beste batzuek aldiz, AEBen kasua, aukera baliatzen dute lanpostu egonkorren kopurua murrizteko eta lanpostu ezegonkor bilakazteko²¹.

Goi mailako irakaskuntzaren masifikazioaren ondorioak ez dira soilik ondorio demografikoak. Unibertsitateko irakasleen kokapen sozialaren arruntze-prozesu bat eragin du, ez baita lehen bezain ezohikoa lanbide horretan aritzea. Aldi berean, ez da hain arraroa unibertsitate-tituluduna izatea. Joera hori areagotu beharko litzateke hurrengo urteetan, herrialde garatuetako hazkunde demografikoa egonkortu arren, 18-25 adin-tartea egonkortzen edo gutxitzen ari baita. Alabaina, herrialde garatuetako politika gehienek unibertsitateko irakasleen kopurua handitu gura dute, ezagutzaren ekonomiari eta gizarteari egokitu asmoz. Frantzian, 2007ko maiatzaz geroztik, Gobernuaren helburua adin-tarte bateko % 50 lizentziaduna izatea da. Oro har, irakasleen —eta bereziki azpi-ordezkatuak diren klase ahulduenetako irakasleen kopurua— emendatu nahi da, baita hasierako heziketan porrot-tasa gutxitu, titulu bat lortu arte ikasketen jarraipena sustatu, ikasketak berriz hastea bultzatu, eta heziketa iraunkorra garatu. Hori dela eta, unibertsitateko irakasleen kopuruak behera baino gora egin behar luke, profil geroz eta ezberdinagoa duten ikasleei harrera emateko, adinari, ezaugarri soziologikoari edo motibazioari dagokionez.

Bilakaera horiek maiz iragaite baten adierazle gisa irakurriak dira, gizarte industrialetik ezagutzaren gizartera pasa baikara, jakinik bere ezauga-

²¹ Stephan, P. (2005). «Job market effects on scientific productivity», séminaire de Sciences Po sur l'enseignement supérieur, Paris.

rrietaryko bat ezagutzaren kontzentrazioaren aurka borrokatzea dela, bakar batzuek ez dezaten ezagutzaren monopolio eduki. Geroz eta gehiago izanik eta prozesu horretan funtsezko rola betetzen dutela kontutan izanik, unibertsitate-irakasleek ezagutzaren eta trebetasunaren erabateko monopolioa galdu dute. Prestigio sozialaren pixkanakako galera horrek jarraitu beharko luke, gutxienez irakasleriaren zati handiengan, alegia, ekoizpen zientifikoaren abangoardian baino ezagutzaren transmisioan eta jantzitako langileen heziketan kokatzen direnengan. Bilakaera hori martxan da duela zenbait urte eta unibertsitateko irakasleen soldaten bidez neurtu daiteke. Horien hazkundera, formakuntza bera eskatzen duten gainontzeko lanbideena baino apalagoa izan da²². Ohar hori baliagarria da unibertsitate-eredu gehientsuenentzat, berdin diolarik Europan bezala ia erabat publikoak diren, edo maila batean pribatuak, Ipar Amerikan lez, direla irakasleak funtzionario edo kontratu pribatupeko.

AEBetan, 1950 eta 1960ko hamarkadetan hazkunde azkar baten ostean, unibertsitarioren soldatak beherakada garrantzitsua izan zuten 1970eko hamarkadan. Eta mende laurden bat behar izan da atzerapen hori berreskuratzeko, soilik 2005ean berreskuratu baita 1970eko maila (dolar egonkorretan). Hala ere, zehaztu behar da egoera hori *full professors* gehiago zeudelako esplikatu daitekeela, zeren banaketa estatuska egiten bada, *assistant* eta *associate professor*sek zailtasunak dauzkate 1970eko mailara iristeko. Gainera, unibertsitarioren eta gainontzeko lanbide taldeen arteko alderaketak²³ agerian uzten du zuzenbide eta medikuntza alorretako lanbideetan baino gutxiago irabazten dutela, baita informatikari eta ingeniarietarako baino gutxiago ere, eta ezberdintasunak areagotu egin direla 1999 eta 2003 artean.

6. BILAKAERA HORIEN EMAITZAK

Unibertsitateko irakasleen hazkundera ez da pertsonen klonazioaren bidez gertatu, lanbideak ezberdintze prozesu bat bizi izan baitu. Ameriketako Estatu Batuak urrunen joan dira joera horretan. Izan ere, ezaugarri antzeko gutxi daude nazioarteko ospea, soldata ona eta munduko ikaslerik hobeenak dituen Harvardeko *tenured* irakaslearen, eta diplomatura eskaintzen duen unibertsitate publiko bateko *tunered* irakasleen artean, jakinik azken hauek ez dutela ikerlanik egiten, hainbatek ez dutela doktoregorik, irakas-kuntza ordu asko dauzkatela eta beren soldata hitzarmen kolektiboek finkatzen dutela. Enplegu finkoak dituzten bi irakasleen arteko ezberdinta-

²² Bouzidi, B., Jaaidane, T., Gary-Bobo, R. (2007). *Les traitements des enseignants français (1960-2004): la voie de la demoralisation*, Université de Paris 1.

²³ Schuster, J., Finkelstein, M. (2006), *The American Faculty: The Restructuring of Academic Work and Careers*. Baltimore: John Hopkins University Press, 245 or.

sunei, irakasle kontraktualenak gehitu behar zaizkie. Hain zuzen ere, nola alderatu daitezke urte baterako ala birako denbora osoko kontratua daukan post-doktoregaia eta unibertsitate txiki batean ordu batzuk ematen dituen *adjuncta*. Baina, batez ere, tarte nabarmena dago kontratu egonkorrak eta ezegonkorrak dituzten irakasleen artean. Beraz, unibertsitateko irakasleen hazkundeak ikasleriaren biderkatzeari aurre egiteko aukera eskaini badu, lanbide hori du, estatus, kokapen, soldata eta ospe oso ezberdineko hainbat azpi-taldeetan.

Philip Altbachek «irakasleriaren krisia» aipatzen du²⁴, komunitatearen zentzu galera agerian utziz. Lanbidea estatus berezia daukaten hainbat azpi-taldetan zatitua izatea, batzuk irakaskuntzan (*adjuncts* amerikarrak eta PRAG frantsesak kasu) eta besteak ikerkuntzan (post-doktoregaiak lez) berezituak izanari lotua dago. Soilik AEBetako unibertsitateko irakasleriaren zati batek egiten du bat aldi berean irakasle eta ikerlari den ohiko unibertsitarioren irudiarekin.

Europan, antzeko fenomenoak ageri dira, nahiz eta ez hain nabarmen, jardueren aniztasuna bat baitoa karrera profesionalen ezberdintzearekin. Horrela, teoriar, frantses unibertsitazioen karrerak doktoregoa eta akreditazioa edukitzea suposatzen du, irakasle titularra eta ondoren katedraduna izateko, aurrerapena, postuen irekiduraren eta urrats batetik bestera doan bidea arautzen eta antolatzen duten irizpideen arabera gertatzen delarik. Hala ere, praktikan, modelo hori geroz eta gehiago kolokan jarria da. Urrats eta estatus berriak agertzen dira, ATER edo post-doktoregoa esaterako, eta ibilbideak konplexuagoak dira. Natur zientzietan, adibidez, hautagaiak gutxienez post-doktorego bat burutu behar dute eta, ahal izanez gero, atzerrian egitea komeni da.

Europako herrialde gehienetan, bide horretatik doaz goi mailako irakaskuntzaren politiken norabideak, eta mugikortasuna, kidetza aniztasuna eta malgutasun handiagoa hobesten eta sustatzen dituzte. Horrela, arbuaiatu egiten da karrera guztia unibertsitate berean egitea: Frantzia lokalismoa kritikatu da, zeren unibertsitateek bertan formatutako doktoreak kontratatzen dituzte, horrek sor ditzakeen ondorio ezkorrekin, klientelismoa adibidez. Praktika horiek nagusi ziren herrietan (Norvegia, Espainia, Portugal, Japonia...), pixkanaka kolokan jarriak dira, «odol-ahaidetasun» handiegia eragiten baitute. Horrez gain, unibertsitate-karrera egin nahi duten hautagaiak mugikortasun nazionala praktikatzera bultzatuak dira, baita burutu dutenak ere. Irakasleriaren zati batentzako ez da harrigarria bi unibertsitatek irakasle berak bi guneetan klaseak eman ditzan adosten dutela ikustea.

²⁴ Altbach, P. (1980), «The crisis of the professoriate», *Annals of the American Academy of Political Science*, vol.448, 1-14 or.

Altbach, P. (1998), «An international crisis? The American professoriate in comparative perspective», in Altbach, P., *Comparative Higher Education: Knowledge, the University and Development*, Greenwich/London: Ablex Publishing Corporation, 75-91 or.

Azkenik, geroz eta gutxiago dira enplegu egonkorrak dauzkaten unibertsitate-irakasleak. AEBetan, 1969an, denbora osoko irakasleriaren % 96,8k *tenure track*a zeukan lanpostua betez gero, soilik % 85,5ek 1998an, eta % 65,2k 2003an²⁵. Beraz, karrerak ez dira lehen bezain linealak eta unibertsitate-irakasleek beren ibilbidea definitu eta eraikitzeko gauza izan behar dira. Hori dela eta, pertsona batetik bestera oso ezberdinak izan daitezke, eta muga geografiko zein instituzionalak gainditzera eramaten dituzte.

Beraz, unibertsitateko irakasleen lanbideak eraldaketa nagusiak eza-gutu ditu bere kopurua, mugak, barne-osaera eta estatus orekei dagokienez. Masifikazio- eta ezberdintze-prozesu horiek lanbidearen batasuna narriatu dute.

7. IRAKASKUNTZAN DAUZKAN ONDORIOAK

Unibertsitate-irakasle lanbidearen masifikazioa, feminizazioa eta eze-gonkortasuna bat datoz unibertsitateko ikasleek azken 50 urteetan bizi izandako eraldaketekin. Frantzia, 1960 eta 2008en artean, ikasleen kopurua hamar aldiz biderkatu bada, emakumeak eta jatorri sozial ahulene-koetatik datozen ikasleak goi mailako irakaskuntzan sartu dira. Halaber, Unibertsitateak ugaritu dira: Pariseko fakultate ezagun bezain prestigio-dunei eskualde-hiriburuetakoko zentroak gehitu zaizkie, eta zer esanik ez 100.000 biztanletik beherako hirietan kokatuta daudenak, Pauekoa adibide. Zentzu horretan, unibertsitate-irakasleen masifikazio zein ezberdintasun geroz eta handiagoak unibertsitateen eta horietako ikasleen aniztasun eta dibertsifikazio prozesuei erantzuten diete. Zentzu horretan, irakasle eta ikasleen arteko haustura geografiko zein sozio-kulturala saihestu da, identifikazio zein hurbiltasuna sustatuz. Era berean, erreferentzia, balore, iritzi eta ikusmolde ezberdinak sartu dira unibertsitatean, harreman pedagogikoa aberastu eta klasea emateko moduak aldaraziz.

Aitzitik, hainbat arrazoiengatik, eraldaketa horiek zalantzak sortzen dituzte irakaskuntzaren kalitatearen inguruan:

- Azken 40 urteotan sortu diren zentro asko lehen eta bigarren zikloetara mugatzen dira, hirugarren zikloak eta ikerketa-guneak unibertsitate handietan biltzen direlarik. Ikerketaren kultura mugatua denez, ikerketa gutxi eta maila apalekoa egiten dute, banaka nola taldeka. Hori dela eta, bertan lanean diharduten irakasleek ez dute irakaskuntza eta ikerketaren arteko joan-etorria egiten, horrek dakarren bizi-tasun eta aberastasunarekin. Izan ere, ezin ditzakete beren klaseak egin dituzten ikerketen bidez hornitu eta apailatu.

²⁵ Schuster, J., Finkelstein, M. (2006), *The American Faculty: The Restructuring of Academic Work and Careers*. Baltimore: John Hopkins University Press.

- Irakasle eta ikerlari hoberenak unibertsitate onenetan kontzentratzen dira zeren, maila batera iristen direnean, beren jatorriko unibertsitateak uzten dituzte hiriburuetan dauden fakultateetara joateko, lan baldintza hobekak eta lankidetzarako aukera berriak eskaintzen baitizkiete. Baina, batzuen aberastasun intelektualak besteen behar teorikoa dakar. Zentzu horretan, unibertsitateen arteko diferentziak eta desorekak handitzen doaz, ikasle batzuen kalterako.
- Geroz eta irakasle gehiagoren ezegonkortasunak motibazio galera eta inplikazio profesional eskasa dakarte, zeren kontratu, unibertsitate, sail eta irakasgai batetik bestera, eta lankide batzuegandik besteengana baitabilta, inongo aurrerapenik ikusi gabe. Kasu batzuetan, urteak daramatzate egoera horretan. Ziurgabetasunak eta aldaketa amaigabeak akidura fisiko zein psikikoa dakarte, ezin baitira behin betirako eseri eta ezin dutelako beren burua definitu. Nortasun sozial zein profesionala aldakorra dute oso.
- Kontratuak kurtsoa hasi baino aste bat lehenago eta batzuetan kurtsoa hasi ostean izenpetzen dituzte. Hori dela eta, ez daukate denborarik irakasgaiak behar bezala prestatzeko eta, aldi oro, denboraren atzetik korrika dabilta. Horri maiz beren espezialitatetik kanpoko irakasgaiak eman behar dituztela gehitzen badiogu, osagai guztiak bateratuak daude irakasleen atsekabea eragiteko. Ondorioz, beren klaseek ez daukate eduki beharko luketen kalitate eta batasuna, ez dituzte behar bezala menperatzen aipatzen dituzten autore eta teoriak.
- Unibertsitateko irakasle lanbideak prestigio soziala galdu duenez, ez du lortzen ikasle hoberenak erakartzea. Azken horiek nahiago dute ingeniari, mediku, abokatu edo enpresaburu izatea, estatus sozial zein soldata hobekak ematen baitizkiete. Joera hori oso nabaria da Ameriketako Estatu Batuetan, non unibertsitateak ezin duen lehiatu, ez lanbide liberalekin, ez sektore pribatuko enpresa handekin. Egoerak horrek irakaskuntzaren kalitateari eragiten dio goiz edo berandu, bereziki unibertsitate berri edo txikietan.

8. ONDORIOAK

Herrialde garatuetako unibertsitate-irakasleek lanbide talde konplexua osatzen dute, baitan estatus, eginkizun eta lan-modu ezberdinak dauzkaten azpi-taldez osaturik baitago. Aniztasun horretaz gain, hainbat bilakaera konpartitu ikus daitezke.

1. 1980ko hamarkadan unibertsitate-sistemetan burutu diren erreforma instituzionalek eraldaketa sakona eragin dute unibertsitateko irakasleen kudeaketa-moduen. Hori dela eta, profesional horiek eralda-

keta une batean daude, zeinak enpleguarekiko eta estatusarekiko daukaten harremana aldatzen duen, baita beren eguneroko jarduerak eta lanaren antolaketa ere.

2. Herrialde gehientsuenetan lanpostu eta irakasleak kudeatzeko eginkizuna unibertsitateei eman zaie. Bide horretatik doazen neurriak, 1990eko hamarkadaz geroztik hartu dira Austrian, Italian eta Herbehereetan, eta Frantzia nagusitzen ari da unibertsitateen autonomizazioarekin. Bilakaera horrek, unibertsitate-irakasleek zentroarekin daukaten harremana eraldatzen du eta enplegatzaile zein enpleguaren arteko harremanak estutzen. Halaber, langileen kudeaketari buruzko arauak eta prozedurak zehaztera eta finkatzera bultzatzen ditu unibertsitateak. Bestela esanda, barne lan-merkatu bat osatzera bultzatzen ditu. Une berean, unibertsitateen gainean dagoen administrazio-zaintza areagotzen du, eta unibertsitateak irakasleen eginkizunak eta irakasgaien edukiak negoziatzera darama, lan denbora ahaztu gabe.
3. Oro har, egoera ezegonkorrean dauden irakasleen kopurua emendatzen ari da egonkorrekin alderatuta, esan nahi baita bigarren merkatuak gaina hartu diola lehen merkatuari. Horrekin batera, batetik bestera igarotzeko aukerak murriztu egin dira.

Gizarte garaikideetan suertatzen ari diren eraldaketek lanbide talde hau bereziki ukitzen dute abiadura handian eta modu berezietan eginak baitira. Mutazio horien ulermenak eta ikerketak, oro har, lanaren eta lanbide-taldearen bilakaeraren arazoa planteatzen dute, baita irakaskuntzaren kalitatearena ere.

Jasotze data: 2009/09/28

Onartze data: 2009/12/10

Abstract

This article aims to specify the university teacher profile, particularly in developed countries. Fundamentally, it might be said that University overcrowding beginning in the 1960s (given that the number of students increased tenfold), as a consequence of democratising the education system and schooling the baby-boom generation, caused an increase and a diversification in teaching staff. This far-reaching transformation had consequences on teachers' status, functions, tasks, social-cultural origins and academic and professional careers. This mutation, in addition to leading to a loss in social prestige for the profession (as demonstrated by their low salaries), has weakened the

profession's internal cohesion as we might well wonder what a well-known and recognised lecturer from a great University has in common with a teacher giving a few classes in a small centre. All this has an impact on the quality of university teaching.

Keywords: *University. Professor. Profile. Evolution. Quality.*

Este artículo intenta precisar el perfil de los profesores universitarios, especialmente en los países desarrollados. Fundamentalmente, se puede decir que la masificación de la Universidad que se inicia a partir de los años 1960 (puesto que el número de estudiantes se multiplica por diez), como consecuencia de la democratización del sistema educativo y de la escolarización de la generación del baby-boom, ha provocado un aumento y una diversificación del profesorado. Esta profunda transformación ha tenido consecuencias sobre el estatus, las funciones, las tareas, los orígenes socioculturales y las trayectorias académicas y profesionales de los docentes. Semejante mutación, además de traducirse por una pérdida de prestigio social de la profesión (como lo demuestran los bajos salarios), ha debilitado la cohesión interna de la profesión ya que nos podemos preguntar cuáles son los puntos en común entre un catedrático conocido y reconocido de una gran Universidad y un profesor que imparte algunas horas de clase en un pequeño centro. Todo ello se repercute sobre la calidad de la docencia universitaria.

Palabras clave: *Universidad. Profesor. Perfil. Evolución. Calidad.*

Cet article tente de préciser le profil des professeurs d'universités, en particulier dans les pays développés. On peut essentiellement dire que la massification de l'Université, débutée à partir des années 1960 (multiplication par dix du nombre d'étudiants), dont l'origine réside dans la démocratisation du système éducatif et la scolarisation de la génération du baby-boom, a entraîné une augmentation et une diversification du corps professoral. Cette transformation en profondeur a eu des conséquences sur le statut, les fonctions, les tâches, les origines socioculturelles et les carrières académiques et professionnelles des enseignants. Une telle mutation, en plus de se traduire par une perte de prestige social pour la profession (comme le démontrent les salaires peu élevés) a affaibli la cohésion interne de la profession car nous pouvons nous interroger sur les points qu'ont en commun un maître de conférence connu et reconnu d'une grande Université et un professeur assurant des heures de cours dans un petit établissement. Tout cela a des répercussions sur la qualité du corps professoral universitaire.

Mots clé: *Université. Professeur. Profil. Évolution. Qualité.*

BIBLIOGRAFIA

- Altbach, P. (1980). «The crisis of the professoriate», *Annals of the American Academy of Political Science*, 448 liburukia.
- , (1996). *The International Academic Profession. Portraits of Fourteen Countries*. San Francisco: Carnegie Foundation, Jossey-Bass Inc.
- , (1998). «Professors and politics», in ALTBACH, P. G., *Comparative Higher Education: Knowledge, the University and Development*. Greenwich-London: Ablex Publishing Corporation.
- , (1998). «An international crisis? The American professoriate in comparative perspective», in Altbach, P., *Comparative Higher Education: Knowledge, the University and Development*. Greenwich/London: Ablex Publishing Corporation.
- Bouzidi, B., Jaaidane, T., Gary-Bobo, R. (2007). *Les traitements des enseignants français, 1960-2004: la voie de la démoratisation*, Université de Paris 1.
- Bourdieu, P. (1984). *Homo Academicus*. Paris: Minuit.
- Chevallier, T. (2001), «Professional diversity in a centralized system: academic staff in France», in Enders, J., *Academic Staff in Europe. Changing Contextes and Conditions*. Westport-London: Greenwood Press.
- Clark, B. R. (1987). *Academic Life Small Worlds, Different Worlds*. Carnegie Foundations for the Advancement of Teaching. Lawrenceville-Princeton: Princeton University Press.
- Faure, S., Soulié, C. (2005). «Enquête exploratoire sur le terrain des enseignants-chercheurs. Vers un bouleversement de la table des valeurs académiques?», *Rapport d'enquête*, juin.
- Gueissaz, A. (1999). *Les Mondes universitaires et leur informatique. Pratiques de rationalisation*. Paris: Editions du CNRS.
- Houdeville, G. (2006). *Des sociologies à la sociologie. Les conditions et les effets de l'autonomisation d'une discipline dans l'espace académique français: la sociologie après 1945*. Doctorat de sociologie, Université de Nantes.
- Metzger, W.P. (1987). «The academic profession in the United States», in Clark, B.R., *The Academic Profession. National, Disciplinary and Institutional Settings*. Los Angeles-London: University of California Press.
- Meyer, J.W., Schofer, E. (2007). «The university in Europe and in the world: twentieth-century expansion», in Krucken, G., Komutzy, A., Torka, M., *Towards a Multidiversity. Universities between Global Trends and National Traditions*. Bielefeld: Transcript Verlag.
- OCDE (2003). *Manuel de Frascati. La mesure des activités scientifiques et technologiques*, Paris.
- Rapport de Baecque (1974). *La situation des personnels enseignants des universités. Eléments de réflexion pour une réforme*. Paris: La Documentation française.
- Schuster, J., Finkelstein, M. (2006). *The American Faculty: The Restructuring of Academic Work and Careers*. Baltimore: Johns Hopkins University Press.
- Stephan, P. (2005). «Job market effects on scientific productivity», séminaire de Sciences Po sur l'enseignement supérieur, Paris.